



ILEROKO ALDIZKARI EDERGARIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA


:—: || VIII Urtea || 1926'ko Neguila || 96 Zenbakia || :—:

Kaputxino Zoriondun Beri bat

Friburgo'ko Apolinar Aita

Frantzia'ko Matxinadan (1792 Agoñaren 2'an)

I—Matxinadaren aurrekoak



IZKUNDEA—Amaboskafen mendean (eunkian) jakintsu esaten ziran gizon batzuek asi ziran antziñako Grezitar eta Eñomatafen oiturak ikasten eta egiten; orlik sortu zan Izadiaren gauzak ikastea, gizona Jainkotzat idukitzea.

Protestanteen aita Lutero'k, ikaste oieci jafaituaz, gizonaren afazioa, ezaumena jainkotu zuen, Liburu Santu guziak, Espiritu Santuaren itzak afazioaren menpean jafiaz.

Pizkunde'ko jakintsuak eta Protestanteak gizona ta afazioa jainkotuaz, sinismenaren (fedearen) oñafia kendu zioten afazioaren etxeari ta berealaxe zalantzan asi zan etxe ori.

Filosofia—Gure garaietako Filosofia guziaren aita dan *Descartes'* ek bere Filosofia guziaren azpiko jafi zuen gizonak afazoirik ba ote duen ez-baia.

Ez-bai edo zalantza ortatik Spinosak atera zuen mundu au edo Izadi guzia Jainko dala; beste batzuek, afazoi-zaleak, atera zuten afazioa beste gauza guzien gain dagola, bai Jainkoaren beraren gain ere; beste batzuek, *materialistak* esaten zaienak, atera zuten Izadian dagon ta bizi dan guzia lur utsa dala ta lufaren moldatze bereziak.

Ikaste ta uste oiek laster zabaldu ziran gizonen ta efien artean. aragiaren naiak betetzen baitzituzten, Jainkoarekiko axolagabekeria erakutsiz. Inglatefako Filosofiazaleak, batez ere Locke ta Berkeley'k, sakonago ikasi ta geiago zabaldu zituzten gogoeta oiek, mundu guztiazen eta efi guzien eratzea gizonaren gogo eta naietik datofela, gizonak egiten dutela efi-batzafa, agintariai eta efi-buruai efiak berak ematen diela beren eskubidea ta agintea; gizonak bere zentzunak, begi-belafiak-ta, esaten diotena bakarik ezagutzen duela ta nai duela. zentzunaz gañeko gauzarik eztezakela jakin, zentzunak direla guztien itufiak.

Masoiak Frantzian — Ikasketa auk, Inglatefako Filosofia-zale ta literatoen bidez zabaldurik, Masoi-ikastea ta Masoi-alkartasuna sortuarazi zuten. Oien birtartez edatu, zabaldu zan Frantzia'ra; elertzaleak (literatoak) zitaidu, pozoitu zuten Montaigne, Bayle'ren adimena, eta oiek baño askoz gutxiago balio zuten beste guztiazen ere bai, jakina! Ofela azi ziran Rousseau, Voltaire, Montesquieu; gero oiek, batez ere Voltaire, masoien eskuetan jafi ziran, guztia zitaltzeko, pozoitzeko.

Gero Voltaire ofek, Erlijioari guda (gefa) egiteko eta irakaste ta uste pozoitsu oiek zabaldu ta sakabanatzeko. artu zituen laguntzat bere antzeko gizonak: D'Alambert, Diderot, *Encyclopedia* deritzan liburuaren egileak, D'Holbach eta; dena ondatu nai zuten, Erlijioa, Jainkoa, efegea, gizartea.

Hugonoten idazlanak, liburu zikin-lizunak, efiak efegearen ta agintarien nautsikeriari zion gofotoak, Ipar-Amerika bere buruaren jabe egitean nonnai esnatu zan alaitasunak, Turgot'ek eta batez ere Necker azpikariai beren naspila ta zurtasungabeaz efeinuko ondasun-kontuetan sortu zuten lafitasunak piztu zuten Matxinada izugafiaren sua, artarako gertu (prest) zegoen efiaren labea.

II—Matxinada piztutzen da

Diru-bear aundian arkitzen zan aldi artan Frantzia. Beartasun ori nolazpait osotzeko, efegek eta bere agintari-lagunak, 1789'ko Ilbeltzaren 24'an agindu zuten Aundizkien. Elizgizonen ta Efiko-gizonen Batzafek biltzea, zer bide artu bear ziran galdetu ta erabakitzeko.

Beraz iru gizon-mala oiek autatu zituzten beren ordezeko edo aldun (diputadoak). Orduarte oitura izan zan beti mala oietako ordezekoak beren bilerak berex egitea, Aundizkiak alde batean, Elizgizonak bestean ta Efiko-gizonak bestean; baña aldi artan Efiko-gizonen ordezekoak. aropuzturik, esan zuten oraingoan etzirala ofela egin bear bilerak, guziak batean bildu bear zirala erabakiak antzeko.

Aundizki ta Elizgizonen ordezekoak etzuten Efikoen asmo ori ontzat artu, eta orduan auk, besteak baño geiago baitziran ta indar aundiagoa baitzuten, bakarik berex bildu ziran Batzafé Nagusian eta beste bi malai biltzeko eskubidea ukatu zieten; gero beren erabakiak artu zituzten, eta efegeari, nai edo ez, ontzat emana-razi zizkioten beren erabaki oiek.

III—Matxinadazaleak nagusi.

Efegeren argaltasuna ezaguturik eta ikusirik, Efiko-gizonen Batzafé Aundi ori jafi zan bere kabuz Frantzia'ko efeinu guziaren Nagusi, Efegek etzuen besterik egin bear aien erabaki ta asmoak ontzat eman besterik; ori gertatu zan 1789'ko Garagafilaren 17'an. Geroxeago Dagonilaren (Agoztuaren) 4'ean argitaratu zuten efiaren *eratze, antolatze* befi bat, onafitzat ipintzen ziotela Rousseau'k asmatutako «gizonaren eskubideen agerpena» (efiaren ta gizonaren atazoia dira nausi, eztute inor beren gain, ezta bear erlijiorik eta abar).

Ufengo urtean, Uztailaren 12'an egin ta argitaratu zuten lege makur bat, Elizgizon ta Elizgauzen kontuak berak nai zuten bezela eratuaz, atonduaz, (Frantzia'ko Elizak etzuen Efomarekin ikustekorik ez artu-emanik bat ere izan bear. efiko agintarien menpean egon bear zuen eta abar).

Elizgizon guziak zin-egiñaz (juramentu egiñaz) onartu bear zuten lege ori, bestela bearko zuten Frantziatik atera atzefira, edo espetxera (kartzelara) joan edo il. Zenbait Elizgizonek onetsi zuten lege ura ta egin zuten eskatzen zitzaien ziña (juramentua); baña geienak, Jainkoaren laguntzaz indarturik, etzuten olakorik egin nai izan; orduan berexi ziran alde batera apaiz *zin-egiñak*, bestera apaiz *zin-*



Ama-Semeak. Musu ematen.

egingabeak. Etegek etzuen bere etxean apaiz *zin-egiñik* iduki nai. 1791'ko Jofailaren 13'an Batzafeakoak eraman zioten lege bat, zin-egin etzuten apaizai neke ta zigofadak ezartzeko; baña Etegeak etzuen lege ura ontzat eman, ez aren azpian bere izenik jafi nai izan. Orduan Batzafeakoak, amofaturik, Etege bera ezeztu ta bazteferatzeko asmoa artu zuten.

IV—Katolikoek aurka

1791'ko Azaroan izugarizko guda asi zuten elizgizonen ta katolikoek aurka (kontra); ufengo urteko Uztan kendu zuten Efegea: orduzkerok zofoztu ta piztu zan geiago zin-egin etzuten apaizen kontrako amofua, afapatu ta giltzapean sartu egiten zituzten. ¡Karmeliten eliza, Abbaye, Force, St. Firmin! Al zer gauzak ikusi zituzten toki oiek! Zergatik afapatzen ta lotzen zituzten? Alegia, Frantzia'ri guda (gefa) egiten zioten Alemandaren adiskide ta laguntzaleak omen ziran apaiz aiek; baina ori aitzaki uts bat besterik etzan; ain gaizki artzen zituzten, lege makur ura onetsi nai etzutelako.

V—Espetxetara. kartzelara

Karmeliten elizan sartu ta giltzaturik egon ziranen biziera Barruel'ek idatzi du; leku txiki batean 95 lagun zeuden, erdi janak; ordu jakinetan aterazten zituzten baratzetxo batera, aizea artzera; an izkutuan egiten zituzten beren otoitzak. Alako batean, 1792'ko Agofaren 2'an (igandea zan) ona zer gugoratu zitzaion Prière Louis ardo-saltzale biufiari; kalean bildurik zegoen jendetalde bati itzaldi sutsu bero bat egin zion, «Karmeliten etxean zegoen ala-olako jende ura ondatu ta il bear zala, bestela etzegola pakerik»; eta kaleko jende guzi ura, olako itzekin suturik, sartu ziran Karmeliten etxera ta an zeuden guztiak ezpataz il zituzten. Gero beste ainbeste egin zuten beste espetxe (kartzelatan) zeudenekin ere: 227 lagun il zituzten guzira. Oietatik 191 zoriondun-etsi edo aldaretan jafi ditu Eliza Ama Santuak. Jesukristoren sinesmenari (fedeari) eusteagatik ta ez ukatzeagatik il ziralako.

VI—Il oien artean ezagungariak


Karmelitetan il ziranen artean bazan euskaldun bat, Frantzisko Dardan. Benapafo'ko efi lsuritz'en jaioa 1733'ean, eta Barbara Santuko ikasleen aitor-entzule zana. Baziran gañera Asis'ko Frantzisko Santuaren iru seme: A. Seberino Girault, Irugafen Ordenako frailea; Juan Frantzisko Burte, Rambersvillers'en jaioa (1740). Kordoidunen Arduradun (Prokuradorea) zan; eta bestea, Kaputxino bat, Friburgo'ko Apolinar Aita.

VII—Friburgo'ko Apolinar A. Kaputxinoa.

Onen bizia itz gutxitan esan nai dizuet. Apolinar Aita, munduan Juan Jakobo Morel, Suizan, Friburgo ondoko efi Prez-vers-Noréaz deritzaionean jaio zan 1739'ko Garagañilaren 12'an; Friburgo'n, Jesuiten ikastetxean Filosofia ikasi ta gero Kaputxino egin zan 1762'ko Agofaren 26'ean. Sion'en eman zuen lenbiziko Meza 1769'ean ta gero egon zan sei urtez Teologia irakasten Friburgo'n, geroago fraile-befien irakasle, arimen-zuzentzale, predikari eta abar, guzietan bere eginkizuna oso ongi betetzen zuela.

1788'gafen urtean Bretaina'ko Kaputxinoen Nagusiak eskatu zion Suiza'koari, ea etzizkion bidaliko fraileen batzuek, Asia'ko misiotara joateko. Gure A. Apolinar belaxe eskeñi zan arako. Asia'ra joan baño lenago, Paris'en gelditu bear izan zuen, misio aietako izkera ikasi ta obeki prestatzeko. Bitartean etzan alperik egon gure Zorionduna; baziran Paris'en, S. Sulpice pafokian, bost mila alemandar katoliko; baña beren izkuntza zekien apaizik etzutelako, an zeuden gaxoak erlijio-gauzetan maisurik gabe. Gure Apolinar A. jafi zuten bada alemandar oien arimazai, ta berak pozik artu ta ederki bete zuen eginkizun ori.

Bitarte ortan ler-egin zuen Frantzia'ko Matxinada izugaria; gure Kaputxinoak etzuen ontzat artu nai izan len aipatu degun lege gaizto ura eta ofegatik, 1792'ko Dagonilaren 14'ean afapatu ta Karmelitetako espetxera eraman zuten. An aritu zan bere lagunak konfesatzen, alaitzen, iltzeko prestatzen eta suztatzen, ta ola etofiti zitzaion berari ere iltzeko ordua; Agofaren 2'an il zuten besteekin batean. Elizak zoriondun-etsi edo aldaretan jafi du aurtengo Ufilaren 17'an.



Deabrua banintz...

*****◆◆◆*****



IGANDEA zan ta igo zan asteroko itzalditxoa bere semeai egitera Pranzi'ko elizatxo batean beftako buru edo pafokua. Ta asi zan: «Nere anai maiteak, ni deabrua banintz...» ta ontan gelditu zan, guziai begira, beren begietan zerbait ikusi nai izan balu bezela. Kristauak afituta gelditu ziran, beren aitaren aotik alako

itzak entzunda; ez-pai-zioten inoiz onelako itzik aditu.

Zer uste dezute esango nizuekela, deabrua izan ezkerro, galdetu zien apaizak; igandetako meza uzteko... Jaungoikoaren izen santua ankapean ibiltzeko... al dezuten guzia lapurtzeko... Jaunaren ta Elizaren agindu edo mandamentuak ufatzeko...?—Zer esango edo aginduko nizueke?—Ta guziak asi ziran, asmatzen ote zuten edo, lanean; baña zer esango liguke gure apaizak, inpefnuko deabrua balitz...?

Deabrua banintz, esan zien azkenean, ona zer egingo nuken zuekin. Zoazte, esango nizueke, ta sartu ezazute zuen etxetan periodiku gaiztoa... ta gaiztoak ikaratzen bazaituzte, periodiku otza, Jaungoikoaz ta Elizaz beñere itz egiten ez duana. Onekin naikoa nuke zuek guziak irabazteko ta gero poliki, zuek uste gabe, inpefnura eramateko.

Onela adierazi zien apaiz afek zein kalte aundia egiten dion kristauari ez bakafik periodiku gaiztoak, ez; baita ere periodiku otzak, Jaungoikoaren ta Elizaren alde itzik jartzen ez dakien periodiku epelak.

Oso ezagutuak dira Amafgafen Pio Aita Santuak esan zituan itzak, Venezia'ko periodiku katoliko bat il edo ez il zebilela jakin zuanean. «Bear bada, esan omen zuen, nere gurutzea ta nik dauzkaten gauzarik edefenak emango ditut, periodiku katoliko ori bizi dedin».

Afrika'ko mixiolari aundi batek, Lavigerie Kardenal euskaldunak zion gaurko egunean eliza befi bat egitea bezin lan aundia ta edefa zala periodiku onak, al dan guzia, zabaltzea.

Canada'ko Gotzai edo obispo batek ala esan zien urte ontan bere apai-zai: «Lanik edefena egingo dezute, sendi edo famili bakoitzean periodiku

ona sartzen badezute; gure Elizaren befi guziak jakin ditzaten ta elkarēn artean maitasuna ta pakea gorde dezaten, erakutsi zāyezute guziai periodiku ona maitatzen ta zabaltzen.»

Irakurlea, ikusi zure etxera zer periodiku (eguneroko) sartzen dan. Txa-fa edo otza baldin bada, orixe dezu etxeko kaltegilerik ta deabrurik edefena.

Arana.

Osasuna

Osasuna galtzen denean, badira, ura bilatzeko bideak.

Euskalefian siñiste andio daukate *kurandero* eta alako Euskeldunek; alegiazko sendakiñen baitan.

Euskaldunak beste efialdetakoak baño zaleago ote diren sasi-medikue-tara nago.

Betidanik, euskaldunen artean gizon geienak artzaingoari eta nekazaritzari emanak daude; bi bizipide oietan ari dira lanean aspalditik gure senideak. Aberen gaitzetan eta oien ezur autsi-ateraletan trebatu dena, aren baitako abilezia zerbait sinetsi dute jendeek.

Gizona, *kurandero* lanetan asi baño len, geienetan artzaingoan ikasi du abere zaintzen, auen eritasun artatzen eta auen gaitzak bilatzen edo berexten. Aberen gaitzak asko gisetara ezpai dira, badirudi ezez direla jakiteko eta ikasteko.

Nor edo nor, bilatze edo berexte ura egiteko gaiago denik, ura nagusi, ura abere-sendakin.

Bear orduetan, ezin bestean, gizaki-gaitzentzat ere nausitasun artaz baliatzea ez da afitzeko, eta ona emen bide bat, artzaina sendakin bilakatzeko.

Sasi-medikuntzan badire batzu jende-enganatzale direnak; auek ezdute asmo onik, alper-andi batzu dira, besteen bizkafetik aisara bizi nai dutenak.

Beste batzu, befiz, asmo onetan ari dira; jendeen ona nai dute eta orietaz nai ginuke, oraingo gure solasa.

Baño, auen artean, badaiteke bat-bederaren jakitateaz geiegixko bere buruaz artua, jakingabeak ortara laguntzen duela.

Sendakintzan berezi daitezke, alde batetik bafneko gaitzak eta bertzetik ezur autsi-ateraiak; geienetan bietan nagusitasun bera agertu nai dute. Bein artaratuez geroz, berdin *jakintsun* bai dire bietan.

(*Urangoan jaraitzeko*)

LAĖREKO

Su-baztereān

Bike (alkitran) ta breazko orban edo mantxak kentzeko petroliuaz bus-ti ta ur bero jaboituaz garbitu.

Zapatak garbi eukitzeko esnean bustitako zatar batekin garbitu ta diz-diza atera oyal zar iletsuaz ala terziopelozkoaz.

* * *

Gauza efaza da kristaletako pinturak kentzea trementinaz bustitako zi-lar aia tupikizko (kobrezko) diru batez igurtzi ezkerro.

* * *

Sosa busti pixka batek arinduko du efeduraren oñazea.

* * *

Efedura oien oñazeak efedurak urez busti ta, eguzkiak asko berotzen duanean, eguzkitara, edo su ondoan jafiaz ere arintzen dira.

B. B.



Euskaleri'ko bazter batean (Bizkaian) bola-jokua igande aratsaldean.

(Manterola'ren argk.)



Ilabete onen amalaugarren egunean meza bat emango da «ZERUKO ARGIA'-REN» irakurle, zabaltzale ta ongile guztien alde, Antonio Santuaren aldarean.



GUBERI'KO LOREA

(ETXAÏ-ARANATZ)

URTSUIA'ren itzak

LIZARÁ'ko ILARI A'k.
bi dua ta ereskidetua.

Andante *p*

Lan-da - re bat sortu

p

da Da-bid'en lu - fe - an; *mf.* I - sa - i - ak as -

mf

pal - di E - sa-na ze-du - kan, Lo - re - txo bat e -

man du Ne - gu bi - o - tze - an Gaur gau-er-di er-

di - an Es - tal-pe ba-le - an Lan da-re-txo ya-

yo - a A - ma Bir-ji - ña da; Je-sus be-re Se-

me - a A-fo-sa po-li - ta.

me - a A-fo-sa po-li - ta.

II—Aingeruak zerutik lore au ikusi
Ta guziak lufera sailka dira jetxi.
Lorearen afean belauniko jafi
Ta aguf egin diote pozez ta kantari.
Belen'go estalpea zeru biurtu da;
Oi zorion aundia! lufean zerua!

III—Aingeruak deitu-ta mendiko ar-
tzaiaik
Belen'a joan dira kantari alaiak.
Zeruko loretxoa antxe arkitzean
Aien biotz-arimak nola poztu diran!
Goazen, goazen gu ere estalpe artara
Lore zoragafia goazen ikustera.

Gure Misiolaria ⁽¹⁾

*Begira gure mixiolaria,
Gurutze Deuna eskuan,
Nola, Jaunari galdu zaizkion,
Ardien bila dijoan.*

*Baso ilunak, pizti gaiztoak
Iñoiz ez dute bildurtzen;
Izotz gogorak, bero aundiak
Beñere ez dute izutzen.*

*Bere guraso laztan-kutunak
T'efi maitea utzirik,
Azken gabeko luraldeetan
Arkitzen dala bakarrik.*

*Biotza dauka goimaitasnez
Pil-pil-pil bizi-bizian,
Jainkozko leiak di-dir du egiten
Bere arpegi argian.*

*Aldapak gora, mendiak aruntz,
Baso beltz-beltzak barrena
Bizkor dijoa, beti egiñaz
Gogo berozko arena.*


*Lagun aldendu-eziñak ditu
Gosea ta egaria;
Gauean befiz atsedeteko
Oetzat du lur gorria.*

*Bero aundiak, izotzaldiak,
Egari eta goseak,
Guztia oso pozik darama,
Arkitzeaŕen ardiak.*

*Lagun zaiegun, kristau maiteak,
Jainkozko gizon aieri,
Beroien onez zerbait emanaz,
Otoitz egiñaz Jaunari.*

Sabiaga.

(1) Olerkitxo au oso egokia da misioen alde egi-
ten diran antzoki-jaietan (teatro-jaietan) eta, esateko.



Txina'rako bidean

20-IX-1926, An Bord des D. "Saarbrücken"

Yurëtar Julian A'ri
IRUNA'N



GUR, nere Abakide ta adixkide ori. «ZERUKO ARGIA'N» argitaltzeko gai dan gauzarik ez daukat idazteko; bañan ikusi dezazuten zuetaz ez gerala aztutzen, eta gayik danean idatziko dizuegualako ustea izan dezazuten, idazten dizut au.

Port-Said bitarteko befi guziak jakingo dituzte noski, Gergori A'ren idazkiagatik. Ilabete onen 9'an, afatsaldean eldu giñan efi ortara. Bereala sartu zitzaizkigun ontzira gauza-saltzaleak (oyalak, sedazkoak eta..., lepokoak edo colarak, eta bitxikeri ugari) sorgin eta aztiak. Emengo jendea oso begikoi eta txurikari agertzen da; salerostari onak dira.

Itxasoan beziz gure ontziaren inguruan igarika ta diru eske gazte talde bat... «Aimon, Aimon, ya, ya» kafaxika. Eta botatzen zien dirua zalu ateratzen zuten berak ur azpitik eta gero itxuraz jan egiten zuten (itxuraz bakarik noski, bestela ayek iresten zuten ainbat diruakin, urdaleko miñ edefa.)

Afal ostean jetxi giñan ontzitxo batzuetan efira ta ikusi genduan efi guzia gazteleraz zekian *cicerone* batekin (emen asko dira noski gazteleraz zerbait dakitenak).

Efi polita da, denda aundi ta edefak ugari. Gizonezkoak, geyenak, goitik berako soñeko luzeak jazten zituzten, margo askotako jantziak, bañan ugarienak, zuriak eta efauts antzekoak. Itxas-ontziak ikatzez betetzen eta lan bitartean egiten dituzten kafaxiak ikus-entzungafiak dira.

14'gafenean Pering'era eldu giñan, eta ordu batzuek egin genituan ikazketarako. Ugarte au oso legoña da; ez da landare bat ere ikusten; efiak ere ez du noski ikusgafi aundirik, ofegatik asko luferatu baziran ere, gu ez giñan luferatu. Emengo biztanleak afantzaz ta itxasontziak ikazketatuz ateratzen dute beren bizibidea.

Beltzak dira, ikusi ditudan beltzenak noski, ta irudiz oso txiroak (luferratu ziranak dasaigutenez, dioskutenez, ume koxkor guziak bidaztai diru eske ateratzen zitzaizkien, bañan Port-Said'koak baño apalago). Gizonezkoen jantziak geñitik belaun bitarteko oyal zar batzuk, eusteko geñian bil-tzen dituztela.

Guardafui'ko lur-mutufa 16'gañenean igaro genduan. Egun ortaraño itxasoa bare-bare izan genduan, baña egun ontan aizea gogor asi zaigu eta ontziak balantza aundiak egiten dizkigu.


Ontziko geyenak gal-tzen dute jateko gogoa, bazkaltokian utsune aundiak ikusten dira; osoro txorabiatu diranak fran-ko dira. J. e. gu ezgera txorabiatu, baña bai ja-teko gogoa joan (neri oraindik etza ititzuli, oso gutxi jaten det, bañan ondo nago). India'ko itxaso onek igiketa aundia badu ere, atsegiñagodagoemen, Itxaso Gofian baño, aize edefa daukagulako eta ofela ez degu berorik; bañan Itxaso Gofian, batez ere azkeneko egunetan, ez genduan aizerik, eta beroitogañiak egiten zituan; sukaldarietako batil zitzai-gun, beroagatik biotzak auldu ta uts egin ziolako.

Eriotza onekin iruga-fena degu ontzi ontan.

Lenengoa Egeo itxasoan; ontziko mofoietako batek, bere nagusiak etzuela ondo artzen-eta bere burua itxasora bota zuan. Bigafena Fr. Laurentius «Divini Verbi»'ko anai bat, gaztea, ogeita lau urtekoa edo, Genovan ontziratu ta laixter asi zitzayon biotza beratzen eta Port-Said'eraño oeratuta egon zan, eta gizajoak, bere lagunetako Aba batekin, laguntzeko Port-Said'ko gaxotegi katoliko batean gelditu bear izan zuten eta gau artan bertan edo il zan, elizakoak artuta (G. B.)

Eskutitz onekin batez bialtzen dizudan argazkian ageri dira gu bezela Txina'ra dijoazen «Divini Verbi»'ko lagun batzu (il dana bakafik eztago), eta Vicente Katapang Filipinas'ko apaiz bat, Singalon'en Gernika'r Blas A'ren katekista izana.

10'ean afatsaldean, ofizioa otoizten ari nintzala, gutxi gora bera Moise'k bere eñiakin igaro zuan tokian 105 gr. salmoa otoizten ari nintzan;



Genova'n gure misiolariak ur-ontzian sartu ondoan

eta ikusiz Asia'ko lur idofak oroitzen nintzan Jainkoak toki ayetan Israeldarai egindako on aundi ikaragarietaz eta Israeldarai Jaunarenganako izan zuten esker txaraz eta abar.

India'ko itxaso ontan izurde asko ikusi ditugu eta mitxeleta antzeko talde ugariak egaka; mitxeleta ok afai egalari txikiak dira; itxasontziak ere ugari ikusten ditugu.

Igandetan 10'etan Meza nagusia gergoriafiez abestua izaten degu itzaldiakin eta naiko jende joaten da, batzuk katoliko ez diranak ere bai. Kolonbo'ra biar 22'an eltzen gera (J. l.), eta andik igoriko dizuet idazki au. Eskumiñak denai ta agindu ta otoitz zure Prantziskar Anai onen alde.

Lizartza A.

(Aldaba'r Gregorio A'ren eskutitza)

Agoñaren 22'garanean, atsaldeko bostetan eldu giñan Kolonbo'ra, ta egun artan bertan befiro abiatu giñan.

Uria ikusteko gurekin ariu genduan gizona emengotakoa zan, bañan España'ko erderaz ondo zekiana. Esan zigunez, Vitoria'n (Gazteiz'en) iru urtean lanean ibilia omen zan, ta an erderaz ikasia.



Misiolariak ur-ontzian. Lizartza'r Andres A. (1) eta Aldaba'r Gregorio A. (Izazkun) (2). Berekin batez iru Prantziskar misiolari t. a.

16'garanean eldu giñan Sabang efira, ta egun guztia emen egin genduan. Guztiz edefetsi genituan efi au ta bere inguruak.

Lufalde beroetako zuaitz lirañez, ta kolore biziko lorez dena du gure Jainkoak edertu ta ornitu. Eta gizonak ere egiñalak egin dituzte, bide zabalez, ondo landutako belardi legunez eta etxe politaz edefagotzeko.

Gu emen giñan egunean euria eufez egin zigun, ala ere antxe gelditze-ko gogoia ematen zigun. Ain da toki edera ta atsegintsua. Añona'tar Simon Aita antxe egon balitz, esango nion toki eder ayek iltzeko gogoak kendu ta beti an bizitzekoak ematen zizkidatela. Beafik, edertasun ayen Egilea, Be-ra izango da edera go.

29'garfenean, Mikel Deunaren egunean, Singapur'en giñan goizeko be-deratzitako.

Ontzitik atera bezin laster, «*St. Joseph's Institution*» deritzayon ikas-tetxera eraman ginduten, eta an meza eman genduan.

Salle'tar Anayena da ikastetxe au. Miñ ta seireun mutil dauzkate. Gaz-tenak sei urtekoak; zafenak, amasei edo emezortzi urtekoak ematen zuten.

Singapur'en, alde guztietan txinar asko daude. Txinafak oso begiko ta maitagafi iruditzen zaizkigu.

Arpegi alaya, ta ezpañetan ifibaña darabilte.

Biar Hong-kong'en izango gera, Jainkoa lagun. Gure Kansu'ra eltzeko gogo gera.

Ontzian ematen duten janariaz ez daude pozik bidaztiak.

Compañia ontako beste ontzi batzuetan, obeto jaten ematen omen du-te, ikusi dutenak diotenez. Guri ere, emengo janaria ez zaigu atsegin.

Jainkoari ta zuen guzion otoitzai esker, ederki gabiltz.

Ekin beti otoitzai gure alde. Dirua baño ere beaño, askozaz beaño ditugu-ta.

Hong-Kong, 4-X-1926.

Izaskun'ak.

Kansu'ko gure Misioentzat limosnak

Yuñe (Bizcaya).—J. Ramiro Ufeta apaiz jaunak Lizartza'r Andres ta Aldaba'r Gregorio AA'entzat txinatar lau aur (bi mutiko ta bi neskato)erosi ta bataiatzeko, mutikoai Jose ta Anto-nio, neskatoai beñiz Maria Dolores ta Maria Pilar izenak ipiñiz 40 pezeta.
 Bilbo'tar batek 100 pezeta.
 Irundar batek 1.000 franco.
 Lizartza'r Andres ta Aldaba'r Gregorio Aitak joaterakoan gure komentu onetako elizan bildua 400 pezeta.
 Zaragoza.—Santa Ana'ko Monjak 100 pezeta.
 Bost aur txinatar bataiatzeko, Ama Astorch Beneragafia laster aldaretan ikusi dezagun, N. N 25 pezeta.
 Sangoza'tik 25 pezeta.
 Tudela.—Alava Alba Andreak, Gregorio ta Andres Aitak lenbizi bataiatuko dituzten aur txinatarfai Maria Rosa Jabiera Alava ta Ana Karmen Alava izenak jafi ditzaieten 15 pezeta.
 Iruña.—Maria Etxagüe bost aur txinatar bataiatzeko ona-ko izen auekin: Maria, Karmen, Antonio, Frantzisko ta Jose 10 pezeta.
 Iruña.—Martina Martinez 1 pezeta.
 Iruña.—Askok 88,50 pta.

(Ufengoan jafaitzeko)

Gipuzkoa Asis'ko Santua goratzen

Irugarendarak Loiolan.



ROBINTZI guztiak goratu nai izan du Asis'ko Frantzisko santua bere il zanetik Zuzpireungaren Urtebetean.

Bere seme-alaba Gipuzkoako Irugarendar zintzoak an agertu diote Asis'ko Serafin ori bere alderako zintzotasun ta leyal-tasuna.

Azpeiti ta Loyola ta bere inguruak ederak bai dira, baño askozaz ederagoak, irugarendarak kantuz ta otoitzez bete zituztenian gure aita S. Frantzisko goratzeko.

3.000 Irugarendar bildu ziran Loyola'n egun artan

Ondarabi'tik, Irun'dik, Donosti, Oyarzun, Errenderi, Ernani, Astigaraga, Andoain, Arua, Izlar, Lazkano, Anzuola, Bera eta beste eri askotatik bildu ziran irugarendarak.


Ez degu beñere ikusi Loyolan olako sail edera. ¡Ura sare-ra! 23 estandarte jendien tartean, guztiok S. Ignazioaren Eliza'ra sartu giñan Meza Nagusia izateko. ¡Bai itzaldi edera egin zuala Bermejo Jaun Andoain'go Apaiz gazteak!

«Gure Aita S. Frantzisko goratzen etori gera Loyola'ra, baño bai-ta ere gure Anai zařena ikustalditzera, S. Ignazio Irugarendarak izan «bai zan; eta gure aita S. Frantzisko'k eta bere seme S. Ignazio Iru-garendarak nola lan egin zuten Jesukristo'ren Ebanjelio santuaren «bitartez agertu zuan bere itzaldi eder artan.»

Atsaldian Elizondo'tar Prantzisko Aitak ere itzaldi beroa egin zuan, Irugarendarak zirikatuz, ¡aren'onak, leyalak, zintzoak, eta kris-tau egiazkoak izateko. Bi sermolariak oso ederki.

Gero Azpeitia'ko Eliza Nagusia ikustera joan giñan, ta ortarako Prozesio eder bat egin zan. An zeuden Azpeiti'ko Apaiz Jaun guztiak ta Eriko Alkate ta agintari Jaunak. Azpeiti'ko Banda'k oso ederki la-gundu zitun Asis'tar Frantzisko Santuaren kantak, ta gero beřiz bakoi-tzak bere eriko trenak artu zituzten. Tren ederak, oso luziak ziran, ba-koitzak 8 «bagoi» bazituzten.

Azken agura egin genion Loyola'ri, an gelditu ziran Aita Jesuitak. Ayek ere oso ederki artu zuten Peregrinazioa. Asko lagundu ziguten ta bere nobizioak Peregrinazioaren zai egon zi, an goizian ta baita ere atsaldean azken agura egiteko. Guztiok eskerak, ta baita ere Gipuzkoako Irugarendar guztiok.



Toledo'ko jaiak

Ikusgafiak, zoragafiak izan dira Toledo'n egin diran jayak. Ufila'ren 20'an iriki zan ango eliz-nagusi edo katedralean —aurten bete ditu zazpireun urte—Eukaristi-Batzafa. Jai oyetara iya 40 Gotzai edo obispo bildu dira ta 4 Kardenal. Efege ta gobernuaren ordeiz ministro bat izan da, bai Batzafa iriki, bai itxi zanean.

Igandean, 24'an, egin zan ibil-deun edo prozesiorako bildu ziran Toledo'n 60.000 lagun.

Erabaki edefak artu ziran. Ara batzuek; Gobernuari eskatuko zaio igandetako lana galerazteko, guziak meza entzun dezaten; oitura txafai gogor egiteko, Jaunaren aginduak obeto bete ditezen; al dun guzia egiteko, biraoa (blasfemia) kentzeko; oitura txafak goratu ta zabaldu besterik egiten ez duten liburuai ondo begiratzeko. Beteko al dira onen erabaki edef ta mamitsuak.

Gurutzea bere tokira

Guri, katolikoai gauza asko esan ta gogoratzen dizkigu Efoma'ko Koliseo'ak. Nork esan bertan ixuri dan odola, bertan il diran kristauak? Urteak joan da, gurutze bai jafi zan or. Ta nun egongo zan obe, munduko jabeak ziran, Efoma'ko erege afoai ofenbeste bufuka Koliseo ortan bertan irabazi ta gero?

Gurutzeak ordea etsaiak beti izango ditu; ta etofi ta jabelu ziran Efoma'z beste etsaiak, ez lengoak bezin aundiak, baño bai askoz afoagoak. Beren ustez gurutzea etzegoan ondo Koliseo'an, ango nagusia baltiz bezela, besoak zabalik ta kendu egin zuten gauaz—Jesukristo'ren etsaiak beti iñunpean ibiltzen dira—iñor konturatu etzedin.

Orain bere lekura eraman dute egun argian. Gurutzea sartu zanean 100.000 lagun edo bilduta zeuden Koliseoan, 100.000, beren poza nola agertu ta, «Gora Gurutzea» esanaz. Gero Efoma'ko andre aberatsenak ipiñi zituzten lore garfian gurutzea etzan ezker, *Te Deum* kantatu zan, kristauak musu ematen zioten bitartean.

Aita Santuak Mejiko'ko katolikoai

Mejiko'tik etofi diran Gotzai edo obispoak Aita Santua ikusi ta esan dizkiote ango gobernuak katolikoai jafi dizkien lan eta trabak. Aita Santuak mejikotafai bere maitasuna agertzeafen, eman die Gotzaiai jainko-leku (custodia) eder edefa. Aita Santuak nai du jainko-leku au ibiltzea lenengo aldiz gobernuarekin pakea egin da *Te Deum* kantatzen dan egunean. Jainko-leku au prantzetafak emana da Aita Santuari.



Irakurleak, ez utzi irakuri gabe urango bi ofialdeak.